




ISEI - IVEI

C6. PRESTAKUNTZA IRAUNKORREKO PARTAIDETZA





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Abendua 2008

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

ASESORAMIENTO TÉCNICO

Eduardo Ubieta

DISEINUA

Ikur, S.A.



INKESTAREN AURREKO LAU ASTEETAN PRESTAKUNTZA EDO HEZKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTU DUEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako: Europar Batasunean prestakuntza iraunkorreko batez besteko partaidetza maila gutxienez lanerako adinean (25-64 urte) dagoen biztanleriaren %12,5 izatea.

Ezagutzaren gizartera igarotzeak eskatzen duen eraldakuntza gerta dadin, behar-beharrezkoa da prestakuntzaren kontzeptua bizitzaren aldi jakin bati soilik, gaztaroari hain zuzen ere, ez lotzea. Prestakuntza iraunkorraren ideia ezagutzaren eta informazioaren gizartearen proposamenik erakargarrienetako bat da.

Batzordeak honela definitu zuen prestakuntza iraunkorra: "bizitzan zehar norberaren, hiritarren, gizartearen edo enpleguaren ikuspuntutik ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak hobetzeko asmoz burutzen den edozein prestakuntza-jarduera" (Batzordearen adierazpena: "Prestakuntza iraunkorrerako europar gune bat errealtate bihurtu", 2001).

Definizio horren arabera, Europa berriko hiritarrek beren ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak bizitza osoan zehar eguneratzeko eta osatzeko erronkari aurre egin behar diote, norberaren garapen maila altuagoa lortzeko asmoz eta lan merkatuan ahalik prestakuntzarik onenarekin mantentzeko asmoz.

Prestakuntza eredu hori, Batzordeak berak adierazi duenez, europar gizarte-eredutik ezin berezizkoa da eta, horren ondorioz, 2010. urterako helburu handizale samarra finkatu da: 25-64 urte bitarteko biztanleriaren %12,5ek gutxienez prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte har dezaten lortzea, tasa hori EBko inongo herrialdetan %10 baino txikiagoa ez delarik.

"Prestakuntza iraunkorra" inkestaren aurreko azken lau asteetan, enpresa/lantokiaren esparruan edo kanpoan, edozein motatako ikasketak egin dituen 25-64 urte bitarteko (lanean edo langabezian dagoen) biztanleriari dagokiona da.

Batzordeak finkatu zuenetik, zenbait aldaketa izan ditu adierazle honek. Definizioari berari dagokionak: lehena, 2003. urtetik aurrera prestakuntza bezala inkesta egin aurreko lau asteetan burututako edozein ikastaro, ikastaldi edo lantegi hartzen da, eta ez prestakuntza arautua edo erakundeek antolatutakoa bakarrik; bigarrena, 2006ko lehen hiruhilabetean moldatutako bertsioan ikasketa arautuetako oporretan dauden eta ikasketa EZ-arauturik egiten EZ duten ikasleak ez dira zenbakitzailean sartzen.

Bigarren aldaketa datua lortu deneko momentuari dagokio. 2005. urtera arte 2. hiruhilabeteko datua edo udaberriko datua hartzen zen kontuan. 2006. urtetik aurrera datuak urteko lau hiruhilabeteetako batez bestekoa adierazten du eta 1995. urtetik aurrerako datu guztiak irizpide berri horren arabera birkalkulatu dira. Honegatik, 2005ean aurkeztutako datuen eta oraingo datuen artean badira ezberdintasun txiki batzuk, Europar Batasuneko herrialde gehienei eta Autonomia Erkidego gehienei dagozkienak.



2007. urtean Europar Batasunak jatorrizko 15 herrialdeetarako %11ko batez bestekoa zuen eta 27 herrialdeetarako %9,5ekoa (behin-behineko datuak oraindik). Bilakaera aztertuz gero, oso datu egonkorra dela ikusten da eta, beraz, 2010. urterako %12,5ean finkatutako helburua ez dela beteko pentsa daiteke. Beste alde batetik, EBko 27 herrialdeetan ezberdintasun handiak izaten dira: 19 herrialdek %10 baino ehuneko baxuagoa dute eta gainontzekoak Espainiaren %10,4tik Suediaren 2006ko %32ra bitartean daude (Suediaren 2007ko datua ez da oraindik ezagutzen).

Euskadiri dagokionez, 1995-2007 aldiko bilakaerak prestakuntza iraunkorraren tasan etengabeko aurrerapena izan dela adierazten du, 1995eko %4,3tik 2007ko %13,2ra pasa delarik. 2010erako aurreikusitako helburua, Euskadiren kasuan, dagoeneko bete da.

Autonomia Erkidegoei dagokienez 2007. urtean Nafarroa (%13,3) bakarrik heldu da, Euskadirekin batera, helburura. Extremadura (%12,4) ia helburuan bertan dago. Hala eta guztiz ere, gainontzeko Erkidegoek %10 eta %11 inguruko ehunekoa dute. Bilakaera aztertzen badugu, datuak nahiko egonkorak direla ikusten da, Kantabriaren eta Ceuta eta Melillaren kasuetan izan ezik, 2005-2007 aldian ehunekoak 2 puntuz jaitsi baitira. Extremaduran, berriz, ehunekoa 2006tik 2007ra 2,4 puntuz igo da.

Malta, Alemania, Bulgaria eta Greziaren kasuetan izan ezik, bai Euskadin, bai Autonomia Erkidegoetan eta baita Europar Batasuneko herrialdeetan ere, emakumezkoek gizonezkoek baino hein parte handiagoa hartzen dute prestakuntza iraunkorreko jardueretan. Edozein modutan ere, partaidetzaren ehunekoen arteko ezberdintasunak, sexuaren aldagaiari dagokionez, ez dira oso handiak, Danimarkaren eta Finlandiaren kasuetan izan ezik, horiek prestakuntza iraunkorraren ehuneko altuenak dituzten herrialdeak baitira.




C6.1 taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. EAEko datuak.

Urtea ⁽¹⁾	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
1995	4,3	4,9	3,7	1,2
1996	4,3	4,8	3,8	1,0
1997	3,8	4,0	3,5	0,5
1998	4,2	4,9	3,4	1,5
1999	6,1	6,4	5,8	0,6
2000	4,9	5,4	4,4	1,0
2001	4,9	5,7	4,1	1,6
2002	6,1	7,1	5,1	2,0
2003	6,2	7,1	5,3	1,8
2004	6,5	7,9	5,2	2,7
2005	12,7	14,6	10,7	3,9
2006 ⁽²⁾	12,4	13,7	11,2	2,5
2007 ⁽²⁾	13,2	14,4	12,0	2,4

⁽¹⁾ Serie osoa EPA-2005 metodologiarekin kalkulatu da.

⁽²⁾ 2006ko lehenengo hiruhilabetetik aurrera bertsio aldatu bat dago, zenbatzailean *ikasketa arautuetako oporretan dauden eta ikasketa ez-arauturik egiten ez duten* pertsonak sartzen ez dituen.



Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).



C6.2 taula:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Autonomia Erkidegoetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006*	2007*
GUZTIRA	4,5	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5	10,4	10,4
Andaluzia	4,7	4,5	4,2	4,4	4,4	9,5	9,6	9,7
Aragoi	4,0	3,4	3,5	4,1	4,0	11,3	11,8	11,5
Asturias	3,6	3,4	3,4	4,5	3,7	8,9	8,1	8,5
Balearr Uharteak	3,5	3,5	4,1	4,5	5,4	9,5	10,6	9,3
Ceuta eta Melilla	8,0	6,2	5,0	5,9	5,0	12,4	11,9	10,6
Errioxa	1,9	2,4	2,3	2,0	2,0	10,4	9,0	9,3
Euskadi	4,9	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4	13,2
Extremadura	2,9	3,2	3,0	3,7	3,3	9,5	9,0	12,4
Galizia	3,8	4,4	4,9	5,1	6,0	10,5	11,3	11,1
Gaztela eta Leon	6,1	5,4	6,0	6,2	6,4	11,7	11,0	10,7
Gaztela-Mantxa	4,9	4,5	4,7	5,0	4,7	8,6	8,8	9,7
Kanariak	5,6	6,2	6,4	6,4	6,5	11,6	10,6	11,0
Kantabria	3,1	2,1	2,3	2,4	2,6	9,7	8,6	7,6
Katalunia	3,1	3,2	2,8	3,2	2,9	10,0	9,6	9,0
Madril (Erkidegoa)	3,9	3,6	3,5	4,0	3,6	12,2	11,6	11,3
Murtzia	4,6	5,0	4,8	5,5	5,6	8,7	9,3	10,1
Nafarroa (F. Erkidegoa)	6,0	6,5	6,4	6,1	3,9	12,1	12,0	13,3
Valentziako E.	6,8	6,8	6,3	6,6	6,6	10,5	10,5	10,5

Oharra: Serie osoa EPA-2005 metodologiarekin kalkulatu da.

(*) 2006ko lehenengo hiruhilabetetik aurrera bertsio aldatu bat dago, zenbatzailean *ikasketa arautuetako oporretan dauden eta ikasketa ez-arauturik egiten ez duten* pertsonak sartzen ez dituen.

Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).



C6


Prestakuntza iraunkorreko partaidetza

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



C6.2 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Autonomia Erkidegoetan.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, erreferentziatuz 2007. urtea harturik.


Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).



C6.3 taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Autonomia Erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2007. urtea.

	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
GUZTIRA	10,4	11,5	9,3	2,2
Andaluzia	9,7	10,7	8,8	1,9
Aragoi	11,5	13,4	9,7	3,7
Asturias	8,5	9,3	7,6	1,7
Balear Uharteak	9,3	10,3	8,5	1,8
Ceuta eta Melilla	10,6	10,7	10,6	0,1
Errioxa	9,3	10,4	8,3	2,1
Euskadi	13,2	14,4	12,0	2,4
Extremadura	12,4	14,6	10,3	4,3
Galizia	11,1	12,0	10,2	1,8
Gaztela eta Leon	10,7	12,6	8,9	3,7
Gaztela-Mantxa	9,7	10,7	8,8	1,9
Kanariak	11,0	12,0	10,1	1,9
Kantabria	7,6	8,9	6,3	2,6
Katalunia	9,0	10,2	7,9	2,3
Madril	11,3	12,2	10,5	1,7
Murtzia	10,1	10,8	9,5	1,3
Nafarroa	13,3	14,6	12,2	2,4
Valentziako E.	10,5	11,3	9,7	1,6



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).

**C6.4 taula:**

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006 ⁽¹⁾	2007
EB (27 herrialde)	7,1 (e)	7,1 (e)	7,2	8,5 (b)	9,3	9,7	9,6	9,5 (p)
EB (25 herrialde)	7,5 (e)	7,5 (e)	7,6	9,0 (b)	9,9	10,3	10,2	10,0 (p)
EB (15 herrialde)	8,0 (e)	8,0 (e)	8,1	9,8 (b)	10,7	11,3	11,2	11,0 (p)
Alemania	5,2	5,2	5,8	6,0 (i)	7,4 (i)	7,7	7,5	7,8
Austria	8,3	8,2	7,5	8,6 (b)	11,6 (i)	12,9	13,1	12,8
Belgika	6,2 (i)	6,4	6,0	7,0	8,6 (b)	8,3	7,5 (p)	7,2
Bulgaria	:	1,4	1,2	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3
Danimarka	19,4 (b)	18,4	18,0	24,2 (b)	25,6	27,4	29,2	29,2
Erresuma Batua	20,5 (b)	20,9	21,3	26,8 (b)	29,4	27,5	26,6 (p)	:
Errumania	0,9	1,0	1,0	1,1	1,4 (p)	1,6	1,3	1,3
Eslovakiar Errepublika	:	:	8,5	3,7 (b)	4,3	4,6	4,1	3,9
Eslovenia	:	7,3	8,4	13,3 (b)	16,2	15,3	15,0	14,8
Espainia	4,1 (b)	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5 (b)	10,4	10,4
Estonia	6,5 (b)	5,4	5,4	6,7	6,4	5,9	6,5	7,0
Euskadi*	4,9	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4	13,2
Finlandia	17,5 (b)	17,2	17,3	22,4 (b)	22,8	22,5	23,1	23,4
Frantzia	2,8	2,7	2,7	7,1 (b)	7,1	7,1	7,6	7,4
Grezia	1,0	1,2	1,1	2,6 (b)	1,8	1,9	1,9	2,1
Herbehereak	15,5	15,9	15,8	16,4 (b)	16,4	15,9	15,6	16,6
Hungaria	2,9	2,7	2,9	4,5 (b)	4,0	3,9	3,8	3,6
Irlanda	:	:	5,5	5,9 (b)	6,1	7,4	7,3	7,6
Italia	4,8 (b)	4,5	4,4	4,5	6,3 (b)	5,8	6,1	6,2
Letonia	:	:	7,3	7,8	8,4	7,9	6,9	7,1
Lituania	2,8	3,5	3,0 (b)	3,8	5,9 (b)	6,0	4,9 (p)	5,3
Luxemburgo	4,8	5,3	7,7	6,5 (b)	9,8	8,5	8,2	7,0
Malta	4,5	4,6	4,4	4,2	4,3 (b)	5,3	5,5	6,0
Polonia	:	4,3	4,2	4,4	5,0 (b)	4,9	4,7	5,1
Portugal	3,4	3,3	2,9	3,2	4,3 (b)	4,1	4,2 (p)	4,4
Suedia	21,6	17,5 (b)	18,4	31,8 (b)	32,1	33,4 (e)	32,0 (e)	:
Txekiar Errepublika	:	:	5,6	5,1 (i)	5,8	5,6	5,6	5,7
Zipre	3,1	3,4	3,7	7,9 (b)	9,3	5,9 (b)	7,1	8,4

(:) Ez dago eskuragarri

(e) Balio estimatua

(b) Seriearen haustura

(p) Behin-behineko datua

(i) Ikus argibide-testua

(1) 2006ko urritik aurrera adierazle hau hiruhilabeteetako urteko batez bestekotik kalkulatzen da


* Euskadiren kasuan, INE.EPA-2005 datuak

Iturria: EUROSTAT



C6.4 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. 2002. eta 2007. urteak.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "2007. urtea" irizpidearen arabera.
(*) Erresuma Batuak eta Suediak ez dute 2007ko datuak.

Iturria: EUROSTAT

**C6.5 taula:**

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2007. urtea.

	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea
EB (27 herrialde)	9,5 (p)	10,4 (p)	8,6 (p)	1,8
EB (25 herrialde)	10,0 (p)	11,0 (p)	9,1 (p)	1,9
EB (15 herrialde)	11,0 (p)	12,1 (p)	9,9 (p)	2,2
Alemania	7,8	7,6	8,0	-0,4
Austria	12,8	14,0	11,6	2,4
Belgika	7,2	7,4	7,0	0,4
Bulgaria	1,3	1,3	1,4	-0,1
Danimarka	29,2	34,2	24,2	10,0
Errumania	1,3	1,4	1,2	0,2
Eslovakiar Errepublika	3,9	4,3	3,4	0,9
Eslovenia	14,8	16,1	13,5	2,6
Espainia	10,4	11,5	9,3	2,2
Estonia	7,0	9,3	4,6 (u)	4,7
Euskadi	13,2	14,4	12,0	2,4
Finlandia	23,4	27,5	19,4	8,1
Frantzia	7,4	7,9	7,0	0,9
Grezia	2,1	2,1	2,2	-0,1
Herbehereak	16,6	17,0	16,1	0,9
Hungaria	3,6	4,1	3,0	1,1
Irlanda	7,6	9,0	6,2	2,8
Italia	6,2	6,6	5,9	0,7
Letonia	7,1	9,3	4,6	4,7
Lituania	5,3	6,8	3,6	3,2
Luxemburgo	7,0	7,4	6,5	0,9
Malta	6,0	5,7	6,4	-0,7
Polonia	5,1	5,5	4,7	0,8
Portugal	4,4 (p)	4,5 (p)	4,4 (p)	0,1
Txekiar Errepublika	5,7	5,9	5,5	0,4
Zipre	8,4	8,6	8,1	0,5

(p) Behin-behineko balioa

(u) Konparatze arazoak dituen datua

Iturria: EUROSTAT



C6


Prestakuntza iraunkorreko partaidetza

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



C6.5 grafikoa:

Prestakuntza jardueraren batean parte hartu duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2007. urtea.



Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT